

Maiatzaren 22ko 2/1997 FORU ARAUA, Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzkoa.

AZALPEN OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako Foru Arau osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran, foru arauaren zenbat artikulua aldatu dituzten xedapenen zerrenda ere ageri da.

I. TITULUA ARAU OROKORRAK.....	4
1. artikulua. Aplikazio eremua.....	4
2. artikulua. Kooperatiben sailkapena.....	4
3. artikulua. Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzko Aholku Batzordea.....	5
II. TITULUA KOOPERATIBEI BURUZ.....	5
I. KAPITULUA KOOPERATIBA BABESTUEI BURUZ.....	5
4. artikulua. Kooperatiba babestuak.....	5
II. KAPITULUA BEREZIKI BABESTUTAKO KOOPERATIBEI BURUZ.....	6
5. artikulua. Bereziki babestutako kooperatibak.....	6
6. artikulua. Lankide kooperatibak.....	6
7. artikulua. Nekazaritza kooperatibak.....	7
8. artikulua. Elkarlanean ustiatzeko kooperatibak.....	8
9. artikulua. Kontsumo kooperatibak.....	9
10. artikulua. Irakaskuntza kooperatibak.....	9
10 bis artikulua. Etxebizitza kooperatibak.....	10
III. KAPITULUA BABESTUTA EZ DAUDEN KOOPERATIBEI BURUZ.....	11
11. artikulua. Babestuta ez dauden kooperatibak.....	11
IV. KAPITULUA FISKALKI BABESTUTAKO KOOPERATIBEN IZAERA GALTZEA.....	11
12. artikulua. Fiskalki babestutako kooperatiben izaera galtzeko egoerak.....	11
13. artikulua. Ez ohiko egoerak.....	13
V. KAPITULUA SOZietateen GAINeko ZERGAN APLIKATU BEHARREKO ERREGELA BEREZIAK.....	13
<i>Lehen atala. Xedapen amankomunak.....</i>	13
14. artikulua. Xedapen amankomunak.....	13
<i>Bigarren atala. Oinarri ezargarria zehaztea.....</i>	13
15. artikulua. Eragiketa kooperatibizatuen balorazioa.....	13
16. artikulua. Gastu kengarrien kasu bereziak.....	14
17. artikulua. Heziketarako, sustapen kooperatiborako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako bideratutako nahitaezko kontribuzioa gastu kengarritzat hartzeko baldintzak.....	15
18. artikulua. Kengarriak ez diren gastuak.....	16
<i>Hirugarren atala. Zerga zorra.....</i>	17
19. artikulua.- Zergapetze bikoitza ezabatzea.....	17
20. artikulua. Kenkaria enplegua sortzeagatik.....	17
<i>Laugarren atala. Aportazio sozialak eguneratzea.....</i>	17
21. artikulua. Aportazio sozialak eguneratzea.....	17
<i>Bosgarren atala. Atxikipenak eta konturako beste ordainketak.....</i>	17
22. artikulua. Atxikipenak eta konturako beste ordainketak.....	17
23. artikulua. Erregela bereziak.....	18

III. TITULUA KOOPERATIBEN BAZKIDEEI BURUZ	18
24. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergan hainbat partidak duten trataera.	18
25. artikulua. Kooperatiben itzulkinen gaineko zergapetze bikoitza ezabatzea.	19
IV. TITULUA KOOPERATIBEI AITORTZEN ZAIZKIEN ZERGA ONURAK	20
26. artikulua. Kooperatiba babestuei aitortzen zaizkien zerga onurak.	20
27. artikulua. Bereziki babestutako kooperatibei aitortzen zaizkien zerga onurak.	21
28. artikulua. Bigarren mailako kooperatibak.	22
29. artikulua. Kooperatiben batasun, federazio eta konfederazioak.	22
30. artikulua. Zerga onurak aplikatzea eta hauek galtzea.	23
31. artikulua. Egiaptapena eta ikuskapena.	23
V. TITULUA KREDITU KOOPERATIBEI BURUZ	23
32. artikulua. Kreditu kooperatiben definizioa zerga ondorioetarako.	23
33. artikulua. Aitortzen zaizkien zerga onurak.	24
VI. TITULUA KOOPERATIBA TALDEEN ERREGIMENA.....	24
34. artikulua. Kooperatiba elkarten taldeak.	24
35. artikulua. Kooperatiba taldeen erregimena aplikatzea.	25
36. artikulua. Ezabapenak.	26
37. artikulua. Sozietate kooperatiben taldea: kuotan aplika daitezkeen kenkariak eta zergapetze bikoitza ezabatzea.	26
38. artikulua. Kooperatiba taldeen erregimena galtzea.	26
39. artikulua. Atxikipenak.	27
40. artikulua. Talde buru den entitatea.	27
VII. TITULUA HERRI ONURAKO ETA HERRI EKIMENEN KOOPERATIBAK	27
41. artikulua. Herri onurako kooperatiben definizioa.	27
42. artikulua. Herri ekimeneko kooperatiben definizioa.	27
43. artikulua. Herri onurako eta herri ekimeneko kooperatibei aitortutako zerga onurak.	28
44. artikulua. Zerga onuren galera.	29
XEDAPEN GEHIGARRIAK	29
Lehenengoa	29
Bigarren xedapen gehigarria. Lan elkartuko kooperatibak.	29
Hirugarrena. Fruta eta barazkien nahiz koipekien sektoreetako ekoizleen erakundeen programa operatiboak eta ekintza planak.	30
XEDAPEN IRAGANKORRA	30
AMAIERAKO XEDAPENAK.....	30
Lehena. 20/1990 Legera jotzea.	30
Bigarrena. Uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa, aldatzea....	30
Hirugarrena	31
Lauugarrena	31

HITZAURREA

Sozietate kooperatiboen ezaugarriak bereziak izateak eta haiek eginkizun garrantzitsu bat betetzeak gizartean, eragin egin du elkarte mota horiek berariazko zerga sistema bat izan dezaten hasieratik. Konstituzioaren 129.2 artikulua berretsi egiten du berezitasun hori esaten duenean botere publikoek kooperatibak bultzatu behar dituztela legeria egokiaren bitartez.

Asoziazionismo modu hau Euskadin hain erroturik egotean, kooperatibek interes berezia jaso izan dute legegileengandik funtsezko arauketari dagokionean. Kooperatibei buruzko 1982ko Euskal Legeak aurrerapausu handia eman zuen jada gai honetan, eta ekainaren 24ko 4/1993 Legeak, Euskadiko Kooperatibei buruzkoak, areago eguneratu du funtsezko arauketa hori printzipio kooperatiboak errespetatuz eta, aldi berean, bitarteko berriak eskueran jarritz gaurkoa bezalako merkatu zail eta aldakor batean kooperatibek lehiatzen eta garatzen jarraitu ahal izan dezaten.

Zerga arloan, Gipuzkoako Lurralde Historikoak ez du inoiz kooperatiben zerga erregimena erregulatuko zuen Foru Arau espezifikorik izan. Ekonomi Itunaren Lehen Xedapen Gehigarrian eta Zergen Foru Arau Orokorrean aurreikusi bezala, orain arte Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzko abenduaren 19ko 20/1990 Legea izan da, ordezkotza ordezko izaeraz, hemen aplikatu dena (1969. urteko Kooperatiben Estatutu Fiskal zaharra ordezkatu zuen lege horrek), haren aplikazioan foru berezitasun batzuk kontuan hartu badira ere, hain zuzen, Derrigorrezko Erreserba Fondora zuzendutako zenbatekoen trataera eta udal zergen alorrean eman beharreko onura fiskalak.

Euskal Herri osoan eta, bereziki, Gipuzkoako Lurralde Historikoan kooperatibek garrantzi kualitatibo eta kuantitatibo handia dutela kontuan izanik, beren zerga sistema erregulatuko zuen Foru Arau bat prestatzea behar-beharrezkoa gertatzen zen. Eta behar hori arrazoi desberdinengatik gelditzen da agerian:

1. Lehenik, kooperatibismoaren errealitateak berak, gizarte osoarentzat ondorio sozial eta ekonomiko onuragarriak dituelarik, komenigarri egiten zuen dagoeneko arauketa hori.

2. Euskadin zentratuz gero, bertako zerga arauak ekainaren 24ko 4/1993 Legeak ekarritako araudi berrira egokitu beharra bistakoa zen, aspektuetako asko argitu gabe gelditzen baitziren, zerga ikuspegitik, 20/1990 Legean. 4/1993 Legea izan da, beraz, Foru Arau hau prestatzerakoan erreferentziazat hartu dena kooperatiben funtsezko legeriari dagokionean.

3. Gipuzkoako Lurralde Historikoari dagokionez ere, Foru Arau hau nahitaezkoa gertatzen zen kooperatibismoaren barruan dagoen aniztasun osoa jasotzeko, hasi txikiak izan arren garrantzi handikoak diren eta gure Lurralde Historikoan hain ugari ditugun kooperatibetatik, nazioarte mailan kooperatibismoaren garapen eredu eta aitzindari diren enpresa talde handietara iritsi arte.

Bestalde, ezin ahaztu daiteke uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergarena, berriki onartu dela. Enpresen fiskalitatea erabakitzeke garaian Zerga horrek duen garrantzia benetan handia izanik, ezinbestekoa zen, horregatik ere, beharrezko egokipenak egitea kooperatibak 7/1996 Foru Arauak dakarren errealitate berriarekin ados jartzeko, bidezko berezitasunak kontuan hartuz beti ere.

Hori guztia dela eta, Foru Arau honek hainbat neurri berritzaile dakartza, eta horietako batzuk Azalpen zati honetan azpimarratu beharrekoak dira:

- Irakaskuntza kooperatibak, hala gurasoena nola irakasleenak eta bateratuak, bereziki babestutako kooperatiben barruan sartzen dira.

- Kooperatiba mistoen figura lehendabiziko aldiz onartzen da zergen esparruan, eta babes fiskalak eskaintzen dituen onurak lortzeko aukera ematen zaie horrela.
- Administrazio baimenetan isiltasun positiboa sartu da babes fiskala lortzeko exijitzen diren muga jakin batzuk gainditzearen.
- Legez edo estatutuen aginduz Derrigorrezko Erreserba Fondoari ematen zaizkion zenbatekoen 100eko 50 kengarria dela jotzen da.
- Partaidetza bereziak lehenengo aldiz arautzen dira zerga arloan.
- Beste berrikuntza garrantzitsu bat, dakartzan onurengatik eta kooperatiben arteko elkartasun mekanismoak bultzatzeko modu bat izateagatik, kooperatiben finantzak saneatzeko eta haiek sustatu eta garatzeko aportazioek jasotzen duten trataera fiskala dugu.
- Bereziki babestutako kooperatiba berriei baldintza bigunagoak ezartzen zaizkie Sozietateen gaineko Zergan aurreikusten den oinarri ezargarriaren murrizpenaz gozatu ahal izan dezaten.
- Sozietateen gaineko Zergan emaitza kooperatiboak eta kooperatibaz kanpokoak desberdintzeko sistema zaharra aldatu egiten da. Sistema berriak, "tasa bakarrekoak", zergaren egitura likidatorioa eta egitura orokorra parekatzen ditu, eta nabarmen jaitsiarazten du zeharkako presio fiskala. Likidazioa, era hortara, errazagoa gertatzen da, halaber, bai galeren konpentsazioa kalkulatzeko, kuoten konpentsazio sistema zaharraren ordean oinarri ezargarriak konpentsatzeko erregimen orokorra erabiltzen baita, bai kooperatiba taldeen kasuan Zerga likidatzeko.
- Sozietateen gaineko Zergak tasa murriztu bat aurreikusten du kooperatiba txikietarako, gure Lurralde Historikoan hain garrantzitsua den autoenplegu mota hori sustatzearren.

I. TITULUA ARAU OROKORRAK

1. artikulua. Aplikazio eremua.

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoaren arau tributarioak aplikagarri dituzten sozietate kooperatiboen zerga erregimena arautzea hartzen du helburu Foru Arau honek, haien eginkizun soziala, jarduerak eta ezaugarriak kontuan hartuz.
2. Foru Arau honetan espreski aurreikusten ez diren gaietan Gipuzkoako Lurralde Historikoaren arau tributario orokorrak aplikatuko dira.

2. artikulua. Kooperatiben sailkapena.

1. Foru Arau honetan ezarritakoaren ondorioetarako, Kooperatiba Elkartek bi eratakoak izango dira:
 - a) Fiskalki babestutako kooperatibak.

b) Babestuta ez dauden kooperatibak.

2. Fiskalki babestutako kooperatibak, orobat, bi motatakoak izango dira:

a) Babestutako kooperatibak.

b) Bereziki babestutako kooperatibak.

3. artikulua. Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzko Aholku Batzordea.

1. Ogasun eta Finantza Departamentuan Kooperatiben Zerga Erregimenaz arduratuko den Aholku Batzorde bat eratuko da, presidente batek eta sei bokalek osatua. Presidente eta hiru bokal Ogasun eta Finantza Departamentukoak izango dira, beste hiru bokalak Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Nagusiak proposatuko ditu kontseilu horretan kooperatiben ordezkari direnen artean aukeratuz, eta guztiak Ogasun eta Finantzarako foru diputatuak izendatuko ditu.

Batzordearen idazkari lanak Ogasun eta Finantza Departamentuko funtzionario batek beteko ditu botu eskubiderik gabe.

2. Aholku Batzordearen eginkizunak honako hauek dira:

1. Kooperatiben zerga erregimen bereziari buruzko gaietan derrigorrezko txostenak egitea, hauetxek direnean gaiak:

a) Zerga erregimen berezia erregulatzeko foru arau proiektuak.

b) Horiek aplikatu eta interpretatzeko eman beharreko foru dekretu eta foru aginduen proiektuak.

c) Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboan izapidaturiko prozedurak, haien aplikazioarekin zuzenean lotuta dauden arazoak ageri dituztenak, beti ere erreklamatzailerak espreski eskatzen badu.

2. Zerga erregimen bereziari buruzko gaietan ere txostenak egin beharko ditu erregimen hori aplikatzeko emandako arau edo xedapenen eragin eta interpretazioarekin lotuta daudenean gai horiek, baldin eta Euskadiko Kooperatiben Kontseilu Nagusiak, Foru Administrazioaren edo Administrazio Autonomoaren organoek edo Kooperatiba Elkarteek hala eskatzen badute.

3. Kooperatiben Zerga Erregimena aplikatzeko komenigarrien irizten dituen neurriak Ogasun eta Finantzarako foru diputatuari proposatzea.

II. TITULUA KOOPERATIBEI BURUZ

I. KAPITULUA Kooperatiba babestuei buruz

4. artikulua. Kooperatiba babestuek.

Euskadiko Kooperatibei buruzko Legean edo, hala bada, kooperatibei buruzko beste lege aplikagarri batean ezarritako printzipio eta xedapenak betetzen dituzten entitateak hartuko dira, Foru Arau honen ondorioetarako, kooperatiba babestutzat, beren sorrera eguna edozein dela ere, baldin eta titulu honen IV. kapituluaren aurreikusten diren egoeretan sartzen ez badira.

II. KAPITULUA

Bereziki babestutako kooperatibei buruz

5. artikulua. Bereziki babestutako kooperatibak.

1. Hona hemen bereziki babestutako kooperatibatzat hartuko diren eta, Foru Arau honetan ezarritako baldintzak betez gero, 26. eta 27. artikuluan zehazten diren zerga onurak gozatu ahal izango dituzten lehen mailako kooperatiba babestuak:

- a) Lankide kooperatibak.
- b) Nekazaritza kooperatibak.
- c) Elkarlanean ustiatzeko kooperatibak.
- d) Kontsumo kooperatibak.
- e) Irakaskuntza kooperatibak.
- f)¹ Etxebizitza kooperatibak.

2. Bigarren eta hurrengo mailako kooperatibei dagokienez, 28. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio.

3. Kooperatiba mistoak ez dira ezein kasutan bereziki babestutako kooperatibatzat hartuko.

6. artikulua. Lankide kooperatibak.

Lankide kooperatibak bereziki babestutzat joko dira honako baldintza hauek betetzen dituztenean:

1. Bertako kideak pertsona fisikoak izatea batik bat, eta hauek kooperatiban aritzea beste batzuei eskainiko zaizkien ondasun eta zerbitzuak amankomunean ekoizteko.

2. Guztira jasotzen dituzten ordainsarien batezbesteko zenbatekoa, aurrerakinak eta kooperatiba-itzulkinengatik exijigarri diren diru-kopuruak barne, jarduera sektore horretan ohikoak diren eta kooperatibarako besteren kontura lan eginez

¹ Hizki hau Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 5. Artikuluko Bat Zenbakiak gehitu du, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

jasoko zituzten ordainsarien batezbestekoaren 100eko 200 baino handiagoa ez izatea.

3.² Besteren konturako lan kontratua duten langileek urtean egindako lanorduen kopurua handiagoa ez izatea Euskadiko Kooperatiben Legean edo, bestela, aplikaziozko Kooperatiba Legean jasotako lanorduen muga baino.

7. artikulua. Nekazaritza kooperatibak.

Nekazaritza kooperatibak bereziki babestutzat joko dira honako baldintza hauek betetzen dituztenean:

1. Bertako kideak pertsona fisikoak izatea, hauek nekazaritza, baso edo abeltzaintza ustialekuak nahiz ustialeku mistoak beren titularitzapean edukitzea, eta ustialeku horiek kooperatibak, estatutuen arabera, jarduteko duen eremu geografikoaren barruan kokatuta egotea.

Bertako bazkide izan ahal izango dira, halaber, beste Nekazaritza eta Elkarlanean Ustiatzeko Kooperatiba babestuak, Foru Arau honen Lehen Xedapen Gehigarrian aipatzen diren Eraldaketarako Nekazaritza Sozietateak, Ente Publikoak, kapital sozial gehiena ente publikoen esku duten Sozietateak, eta azkenik, aurreko parrafoan adierazitako baldintzak betetzen dituzten eta pertsona fisikoek bakarrik osatuak diren ondasun eta eskubide komunitateak.

2. Beren nekazaritzako jardunean honako muga hauek errespetatzea:

a)³ Kooperatibak bere ustialekuetan zein beren bazkideen ustialekuetan bakarrik erabiltzeko zeinahi den eran erosi, errentan hartu, prestatu, ekoiztu edo fabrikatzen dituen materia, produktu edo zerbitzuak ezin zaizkie bazkide ez direnei laga, salbu eta kooperatibaren jardueraren gerakin arruntak direnean edo lagapena kooperatibari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik egiten denean.

Nekazaritzako kooperatibek petrolioaren produktuak txikizka banatu ahal izango dizkiete bazkide ez diren hirugarrenei, betiere Euskadiko Kooperatiben 4/1993 Legeak 110. artikuluan jarritako muga barruan.

b) Kooperatibaren edo bazkideen ustialekuetan sortutakoen pareko produktuak beste ustialekuetatik iritsi eta hauek kontserbatu, tipifikatu, manipulatu, eraldatu, garraiatu, banatu edo merkaturatuz gero, horien zenbatekoak ezingo du, ekitaldi ekonomiko bakoitzeko, produktu propioek merkaturan duten prezioaren 100eko 5 gaintitu edo, estatutuek hala aurreikusten badute, prezio beraren 100eko 40tik gorakoa izan.

² Zenbaki hau Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 5. Artikuluko Bi Zenbakiak aladatu du, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

³ a) letra hau abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUaren 4. artikulua aldatu du. Aipatutako foru arauak Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen ditu. Aldaketak 2011ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrngo egunetik aurrera ditu ondorioak (2011/12/27ko GAO)

Kooperatibak beste batzuen nekazaritza produktuak erabiltzen dituenen, portzentaia independenteki zehaztuko da apartatu honetan adierazitako prozesu bakoitzerako.

3. Lehen apartatuan aipatu den eremu geografikoaren barruan bazkide bakoitzak kokaturik dituen landa izaerako ondasunak direla eta ordaindu behar duen Ondasun Higiezin gaineko Zergaren oinarri ezargarriak 60.101,21 eurotik gorakoak ez izatea.

Abeltzaintzako produktuak merkaturatu eta eraldatzen dituzten kooperatibetan abeltzaintza independenteko ustialekuen bazkide titularrak integratzen direnean, bazkide hauetako bakoitzak, kooperatiba barruan nahiz hortik kanpo, ekitaldi ekonomiko bakoitzean egiten dituen salmenta edo entregen bolumena ezingo da 300.506,05 eurotik gorakoa izan. Ente publikoak eta kapital sozial gehiena bazkide horien esku duten sozietateak ez dira horietan sartzen.

Muga horien aplikazioaren ondorioetarako, bazkide gisa beste kooperatibista, beste sozietate edo beste ondasun komunitate batzuk ageri direnean, oinarri ezargarriak edo salmenten bolumenak estatutuek ezartzen duten proportzioan egotziko zaizkio bertako bazkide bakoitzari.

Bazkideen oinarri ezargarriak edo salmenta bolumena adierazitakoak baino handiagoak direnean, horien partehartzea salbuespen gisa onartuko da, baldin eta kopuru horiek baturik gainontzeko bazkideei dagozkien 100eko 30 gainditzen ez bada.

8. artikulua. Elkarlanean ustiatzeko kooperatibak.

Elkarlanean ustiatzeko kooperatibak bereziki babestutzat joko dira honako baldintza hauek betetzen dituztenean:

1. Bertako bazkideak pertsona fisikoak izatea, hauek nekazaritzarako ustiagarri diren lur edo bestelako ondasun higiezinak erabili eta aprobetxatzeko eskubideen titularrak izatea, eta eskubide horiek kooperatibari lagatzea bertan lanean egon ala ez. Ondasunen gaineko gozamen eskubiderik kooperatibari laga ez dioten pertsona fisikoak ere bazkide izan ahal izango dira, bertan lan egiten badute beste bazkideek lagatako ondasunak eta kooperatibak, edozein titulua medio, dauzkan bestelakoak elkarrekin ustiatzeko.

Erabilera eta aprobetxamendu eskubideak lagaz gero, kooperatibaren bazkide egin ahal izango dira, halaber, ente publikoak, kapital sozial gehiena ente publikoen esku duten sozietateak, pertsona fisikoek osatutako ondasun eta eskubide komunitateak, nekazaritza eta baso ustialekuak, esku komuneko mendiak, eta Zuzenbide Zibiletik edo Foru Zuzenbidetik arautzen diren antzeko beste erakundeak.

2. Lan kontratupeko langileen kopuruak kooperatiban diharduten bazkide langile guztien 100eko 30 ez gainditzea.

3. Landa izaerako ondasunengatik kooperatibak ordaindu behar duen Ondasun Higiezin gaineko Zergaren oinarri ezargarrien zenbateko osoa ez izatea

60.101,21 eurotik gorakoa bazkideen kopuruarekin, hau da, bazkide langileekin eta ustiapen eskubideak lagatzen dituztenekin, zatitu eta gero.

4. Bazkideek lurra edo bestelako ondasun higiezinak ez lagatzea kooperatibari, haien balioak ustialekuan daudenen balio osoaren herena gainditzen badu, salbu eta lagapena ente publikoek edo kapital sozial gehiena ente publikoen esku duten sozietateek egiten badute.

9. artikulua. Kontsumo kooperatibak.

Kontsumo kooperatibak bereziki babestutzat joko dira honako baldintza hauek betetzen dituztenean:

1. Pertsona fisikoak edo, hala badagokio, helmugako hartzailatzat jotzen diren entitate zein erakundeak elkartzea, hauei guztiei ondasun eta zerbitzuak eskaintzeko eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen legezko eskubide eta interesak defendatu eta sustatzeko.

2. Bazkide langileen ordainsari guztien batezbestekoak, beren eskubidean izango lituzketen kooperatiba-itzulkinak barne, Foru Arau honek 6. artikularen 2. apartatuan ezarritako muga ez gainditzea.

3. Lurralde eremuaren barruan bazkide ez direnei egindako salmentak kooperatibak ekitaldi ekonomiko bakoitzean egindako salmenta guztien 100eko 10etik gorakoa ez izatea edo, estatutuek hala aurreikusten badute, 100eko 50 ez gainditzea.

4.⁴ Kooperatiba batean gutxienez 30 lan-bazkide badaude eta lan-bazkide bakoitzeko gutxienez 25 kontsumo-bazkide badira, kooperatiba horri ez zaizkio aurreko apartatuan adierazitako mugak eta 12. artikularen 10. apartatuan ezarritakoak aplikatuko, eta foru arau honen 6. artikulua 3. apartatuan xedatutakoa beteko da haiei dagokienez.

10. artikulua. Irakaskuntza kooperatibak.

Irakaskuntza kooperatibak bereziki babestutzat joko dira honako baldintza hauek betetzen dituztenean:

1. Irakasgintzan aritzea bere maila, etapa, ziklo, gradu eta modalitate desberdinetan, eta jakintza eta heziketaren edozein arlotan. Eskolaz kanpoko ekintzak eta hauen gisakoak burutu ditzakete halaber, bai eta irakaskuntza osatu eta errazteko balio duten eskolaz kanpoko zerbitzuak eskaini ere.

2. Irakaskuntza kooperatibak ikasleen gurasoak, ikasleen legezko ordezkariak edo ikasleak berak elkartzen baditu, foru arau honek 9. artikularen 2. eta 3. apartatuetan ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

⁴ Apartatu hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUaren 11. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak jardura ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

3. Irakaskuntza kooperatibak irakasleak, irakasle ez diren langileak eta zerbitzuko langileak elkartzen baditu, foru arau honek 6. artikulua 2. eta 3. apartatuetan aurreikusitako baldintzak bete beharko ditu.

4. Irakaskuntza kooperatiba bateratua edo sektoreartekoa izanez gero, foru arau honek 6. artikulua 2. eta 3. apartatuetan eta 9. artikulua 2. eta 3. apartatuetan ezarritako baldintzak bete beharko ditu.

10 bis artikulua. Etxebizitza kooperatibak.⁵

1. Berezik babestutzat hartuko dira ondoko beharkizunak betetzen dituzten etxebizitza kooperatibak:

a) Bazkideek etxebizitza merkeak lortzeko helburua dutenak.

Horretarako, etxebizitza merketzat hartuko dira 120 metro karratuko azalera eraikia edo 96 metro karratuko azalera erabilgarria edo txikiagoa duten etxebizitzak, erosketa prezioa handiagoa ez izanik 1,8 koefizientea Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan babes publikoko etxebizitzetarako finkatutako gehieneko prezioekin biderkatuta ateratzen den kopurua baino.

Horretarako, erosketa prezioztat hartuko da etxebizitzaren eraikuntza kostua, horri egotzitako terrenoaren kostua gehituta.

Dena den, ez dute babespeko izaera galduko negozio lokalak, zerbitzu osagarriak eta hirigintza obrak egiten dituztenean "babes publikoko etxebizitzei" buruzko legerian baimendutako mugen barruan, nahiz eta kooperatibek eraikitakoek izaera hori ez izan.

b) Kooperatiben helburu diren etxebizitzaren xedea bazkideen ohiko etxebizitza izatea. Zirkunstantzia hori erosketaren dokumentuan jasota utzi behar dute bazkideek.

Horretarako, ohiko etxebizitzatzat hartuko da Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren abenduaren 29ko 10/2006 Foru Arauak 90.8 artikuluan halakotzat hartutakoa.

c) Kooperatiba ez desagitea eraikitako etxebizitzak esleitu edo eskualdatu ondorengo bost urteen barruan.

d) Kooperatibaren estatutuek espresuki jasotzea etxebizitza baten bazkide esleipenduna behartuta dagoela zerga legerian ohiko etxebizitzatzat hartzeko finkatutako beharkizunak betetzera. Espresuki adierazi beharko da bazkideak betebeharrak hori ez konplitzeak berarekin ekarriko duela kooperatibari ordaindu beharra etxebizitzaren %10 baino txikiagoa izango ez den kalte-ordaina.

⁵ Artikulu hau uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUaren 11. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak jardura ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen ditu. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarri zen indarrean (2008-07-11ko GAO).

2. Bereziki babestutako kooperatibatzat hartu dadin erabakigarria den baldintza egiaztatzeko eskubidearen preskripzio epea –etxebizitza bazkideen ohiko bizileku gisa erabiltzeari buruzko baldintza– 2006ko abenduaren 29ko 10/06 Foru Arauak, Gipuzkoako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarenak, 90.8 artikuluan aipatutako hiru urteko epea amaitzen denetik aurrera hasiko da.

III. KAPITULUA

Babestuta ez dauden kooperatibei buruz

11. artikulua. Babestuta ez dauden kooperatibak.

Fiskalki babestutako kooperatiben izaera galtzeko hurrengo kapituluak aurreikusten dituen egoeretakoren batean sartzen diren kooperatibak hartuko dira, Foru Arau honen ondorioetarako, babestuta ez dauden kooperatibatzat, nahiz eta legez eratuak izan eta dagokion Kooperatiben Erroldan inskribaturik egon.

IV. KAPITULUA

Fiskalki babestutako kooperatiben izaera galtzea

12. artikulua. Fiskalki babestutako kooperatiben izaera galtzeko egoerak.

Jarraian zerrendatzen diren egoeretakoren batean sartzeak fiskalki babestutako kooperatiben izaera galtzea ekarriko du:

1.⁶ Diru zuzkidurarik ez egitea Derrigorrezko Erreserba Fondoari eta heziketarako, sustapen kooperatiborako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioari kooperatiben legeria aplikagarriak ezartzen dituen kasu, baldintza eta zenbatekoetan.

2. Sozietatea indarrean dagoen artean banaezinak diren Erreserba Fondoak eta likidazioaren unean soberan geratzen den aktiboa bazkideen artean banatzea.

3.⁷ Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legeak 68 bis artikuluan ezartzen duen kontribuzioaren diru kopuruak artikulua honetan aurreikusi ez diren helburuetarako erabiltzea.

4. Kooperatibaren balantzea erregularizatzean edo kapital sozialari bazkideek egindako aportazioak eguneratzean izandako emaitzari ematen zaion erabileraren arau erregulatzaileak ez betetzea.

⁶ Apartatu hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUAren laugarren artikuluaen bat apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak zenbait zergatan aldaket jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 29an jarri da indarrean, nahiz eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko den. (2009-12-28ko GAO).

⁷ Apartatu hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUAren laugarren artikuluaen bat apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak zenbait zergatan aldaket jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 29an jarri da indarrean, nahiz eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko den. (2009-12-28ko GAO).

5. Kapital sozialari egindako aportazioengatik bazkideei ematen zaizkien ordainen interesak legeak baimentzen dituen maximoak baino handiagoak izatea, edota muga horiek gainditzea aportazio horiek berandutza-interesekin itzultzen direnean, edo kooperatiba-itzulkinak sortu arren hauek banatzen ez direnean Batzar Orokorrak sortutako Fondo Berezi batean sartzen direlako.

6. Legean, estatutuetan edo Batzar Orokorraren erabakietan ezarritakoa ez den proportzioan kreditatzea bazkideei sozietatearen itzulkinak.

7. Ekitaldi ekonomikoaren galerak ez egozte, edo egozpen hau Legean, estatutuetan edo Batzar Orokorraren erabakietan ezarritakoaren kontra egitea.

8. Kapital sozialari bazkideek egindako aportazioek lege baimenduta dauden mugak gainditzea.

9. Entitate ez kooperatiboetan 100eko 25etik gorako partaidetza izatea kooperatibak.

Partaidetza hori 100eko 50ekoa izatera iritsi ahal da, dena den, baldin eta entitate horiek kooperatibarako lan egiten badute prestakuntza lanetan edo lan osagarrietan.

Partaidetza horiek guztiak ezingo dira kooperatibaren baliabide propioen 100eko 50 baino handiagoak izan.

Ogasun eta Finantzetako Foru Diputatuak, eskaera aurrez aurkezturik beti ere, partaidetza handiagoak baimendu ahal izango ditu, eta kooperatibak ez du horregatik fiskalki babestutako kooperatiba izatea galduko. Horretarako, ezinbestean frogatu beharko da partaidetza horrek kooperatibaren xede sozialak hobeto betetzen laguntzen duela eta ez dituela entitate horien oinarritzko aktazio printzipioak hausten.

Eskaera aurkeztu eta hiru hilabeteko epean kooperatibari ez bazaio ebazpena espreski jakinarazi, baimena eman egin dela ulertuko da.

10. Bazkide ez direnekin eragiketa kooperatibizatuak egitea legeak baimentzen ez dituen kasuetan.

11. Muga bat ezarrita duten kooperatibek lege baimendutakoa baino soldatapeko langile gehiago izatea.

12. Bazkide kopurua lege aurreikusten dena baino txikiagoa izatea eta kopuru hori hamabi hilabeteko epean ez handitzea.

13. Kapital soziala estatutuek ezarritako gutxienezko zifratik behera murriztea, eta kapital hori hamabi hilabeteko epean ez handitzea.

14. Kooperatibaren jarduna edo bertako organo sozialak bi urtez geldirik egotea ageriko arrazoirik gabe.

15. Bere xedea betetzea edo jarduera kooperatibizatua garatzeko ezintasuna argi eta garbi egotea.

16. Legezko arauak zehazten dituzten kasuetan kanpoko auditoretzarik ez egitea.

13. artikulua. Ez ohiko egoerak.

Ogasun eta Finantzetako Foru Diputatuak, idatzizko ebazpen arrazoitua tarteko, baimena eman ahal izango du bazkide ez direnekin eragiketak egitean eta soldatapeko langileak kontratatzean ez daitezen aplikatu aurreko artikuluetan aurreikusi diren mugak, baldin eta, kooperatibarekin zer ikusirik ez duten ez ohiko egoerengatik, berau, epe eta zenbateko jakin batean, bere jarduerak zabaldu beharrean aurkitzen bada.

Eskaera aurkeztu eta hiru hilabeteko epean kooperatibari ez bazaio ebazpena espreski jakinarazi, baimena eman egin dela ulertuko da.

V. KAPITULUA

Sozietateen gaineko Zergan aplikatu beharreko erregela bereziak

Lehen atala. Xedapen amankomunak.

14. artikulua. Xedapen amankomunak.

V. kapitulu honetan jasotzen diren arauak behar bezala eratu diren eta Kooperatiben Erroldan inskribaturik dauden kooperatiba guztiei aplikatuko zaizkie, baita fiskalki babestutako kooperatiben izaera galtzeko egoeretakoren batean sartzen badira ere.

Azken kasu horretan, kooperatibek Sozietateen gaineko Zergaren tasa orokorra ordainduko dute.

Bigarren atala. Oinarri ezargarria zehaztea

15. artikulua. Eragiketa kooperatibizatuen balorazioa.

1. Kooperatibek, beren xede sozialak garatzeko, bazkideekin egiten dituzten eragiketak merkatuan duten balioaren arabera konputatuko dira.

2. Eragiketa horiengatik alderdi independenteek ondasun, zerbitzu eta prestazioen gainean hitzartzen duten prezio normala hartuko da merkatuko balioztat.

Kooperatibak bere estatutuen arabera jarduteko duen eremuan ez bada alderdi independenteen arteko eragiketa esanguratsurik egiten, bazkideen entreeg merkatuan duten balioa honela kalkulatu da, hots, kooperatibak lortutako salmenta prezioari egin diren merkaturatze edo eraldaketetan egon ohi den marjin gordina kenduko zaio.

Bazkide langileen eta lan-bazkideen aurrerakinen zenbatekoa kalkulatzeko, besteren konturako langileen modura arituz jarduera sektore berean jasoko zituzten ordainsari arruntak hartuko dira kontuan.

Elkarlanean ustiatzeko kooperatibei lurrak edo bestelako ondasun higiezinak erabili eta aprobetxatzeko eskubideak lagatzea, zona horretan lagapen horietarako ohikoa den errentaren arabera baloratuko da.

3. Aurreko zenbakian esandakoa esanda ere, kooperatibak kontsumokoak, etxebizitzakoak, nekazaritzakoak edo, beren estatutuen arabera, bazkideei zerbitzu eta hornidurak eskaintzen dizkieten horietakoak badira, dagozkien eragiketengatik konputatuko den prezioa benetan izan dutena izango da, beti ere ez bada prezio hori zerbitzu eta hornidura horien kostua baino txikiagoa, entitatearen gastu orokorreko dagokien zatia ere barne. Bestela, azken hau aplikatuko da. Nekazaritza kooperatibek ere sistema hau aplikatu dute bai kooperatibak bere bazkideei egindako zerbitzu eta horniduretan, bai eta bazkideek kooperatibari egin eta entregatzen dizkietenetan.

16. artikulua. Gastu kengarrien kasu bereziak.

Oinarri ezargarria zehazterakoan honako gastu hauek izango dira kengarriak:

1. Bazkideek egindako ondasun, zerbitzu edo horniduren entregan zenbatekoa, bazkideen lan prestazioak, eta bazkideek kooperatibari lagatako ondasunen errentak. 15. artikuluan xedatu den merkatuko balioaren arabera konputatuko dira horiek, nahiz eta kontabilitatean balio txikiagoa izan.

2. Legez edo estatutuen aginduz Derrigorrezko Erreserba Fondora zuzentzen den zenbatekoaren 100eko 50.

3.⁸ Kooperatibek heziketarako, sustapen kooperatiborako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako erabiltzen dituzten nahitaezko kopuruak, hurrengo artikuluan zehazten diren baldintzekin.

4.⁹ Bazkideek kapital sozialari beren borondatez nahiz derrigorrez egindako ekarpenek sortzen dituzten interesak (Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legeak 57.5 artikuluan araututako ekarpenenak barne), eta aipatutako legearen 67.2.b) eta 68 bis artikuluetan aurreikusten den kontribuziora zuzendutako zuzkiduretatik datozenak, betiere haien interes tasak, bazkideentzat bi puntutan gehituta eta bazkide laguntzaile eta jardun gabekoentzat lau puntutan gehituta, diruaren legezko interesa gaitzen ez badu. Ekitaldi ekonomiko bakoitza ixtean indarrean dagoen legezko interes tasa izango da erreferentzia.

⁸ Apartatu hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUAren laugarren artikulua bi apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak zenbait zergatan aldaket jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 29an jarri da indarrean, nahiz eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko den. (2009-12-28ko GAO).

⁹ Apartatu hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUAren laugarren artikulua bi apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak zenbait zergatan aldaket jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 29an jarri da indarrean, nahiz eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko den. (2009-12-28ko GAO).

Kooperatibako partaidetza bereziak ordaintzeko erabiltzen diren diru kopuruak ez dira kengarriak izango, haien titularrak kooperatibako bazkide edo asoziatu ez direnean eta partaidetza horiek kapital sozialaren izaera dutenean.

5. Kooperatibek beren arteko lankidetza butzatzen duten erakundeak ematen dizkieten diru-kopuruak finantzak saneatu edo kooperatiba nahiz jarduera berriak sustatu eta garatzeko. Kenkaria egin ahal izateko, eta aportazioa gauzatu baino lehen, Zerga Administrazioak espreski onartu beharko dio erakunde horri bere izaera, eta onarpena hori eman egin daiteke edo ez.

Kooperatiben arteko lankidetza sustatzea helburu duten erakundeak Zerga Administrazioak onartzen dituenen, ez dute kooperatiba elkartuetatik jasotako diru-kopuruengatik tributatu beharko kopuru horiei eman zaien erabilera erakundearen xede sozialean aurreikusitakoa izan dela frogatzen bada.

17. artikulua. Heziketarako, sustapen kooperatiborako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako bideratutako nahitaezko kontribuzioa gastu kengarritzat hartzeko baldintzak.¹⁰

1. Heziketarako, sustapen kooperatiborako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako bideratutako nahitaezko kontribuzioaren zuzkiduragatik kengarria den zenbatekoak ezingo du ekitaldi ekonomiko bakoitzean gainditu ekitaldi horretako soberakin garbien 100eko 30.

Kooperatibaren Batzar Orokorrek onartzen duen planaren arabera aplikatuko da kontribuzioa.

2. Kontribuzioaren zuzkidurak eta planak exijitu ditzakeen aplikazioak, gastu arruntenak izan nahiz ibilgeturako inbertsioenak izan, bereizita jasoko dira sozietatearen kontabilitatean, kontribuzio horri atxikita daudela argi adierazten duten kontuetan.

3. Kontribuzio horretatik interes publikoko helburuak –kooperatibak berak aukeratutakoak– betetzeko erabili ez den zenbatekoa irabazi asmorik gabeko entitateei eman beharko zaie soberakina banatzea erabaki ondorengo ekitaldi ekonomikoaren barruan, eta entitate horiek kontribuzio honetarako ezarrita dauden interes publiko xedeetarako erabili beharko dute.

4. Kontribuzioa onartu ez diren helburuetarako erabiltzeak berarekin ekarriko du behar ez bezala aplikatutako zenbatekoa ekitaldi horretan izandako sarreratzat hartzea, 12. artikulua 3. apartatuan xedatutakoaren kaltetan gabe.

Era berean jokatu da Derrigorrezko Erreserba Fondoaren zatia bazkideen artean banatzen denean, 12. artikulua 2. apartatuan xedatutakoaren kaltetan gabe.

¹⁰ Artikulu hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUaren laugarren artikulua hiru apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak zenbait zergatan aldaket jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 29an jarri da indarrean, nahiz eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko den. (2009-12-28ko GAO).

5. Ekitaldia ixtean, gastu eta errenta negatiboen kontuen saldoak kontribuzioaren emaitzak bilduko dituen kontu berezi batean zordunduko dira, eta bereziki honako hauek:

- a) Prestakuntza, heziketa eta kultur sustapenerako gastu arruntak.
- b) Kontribuzioaren helburuei atxikitako ibilgetuaren ondasunak artatu, konpondu eta amortizatzeko gastuak.
- c) Ondasun horiek besterentzean izandako galerak.

6. Sarrera eta beste errenta positiboen kontuen saldoak ere modu berean zordunduko dira kontu horretan, eta bereziki honako hauek:

- a) Kontribuzioaren helburuak betetzeko jasotako subentzioak, dohaintzak eta laguntzak.
- b) Kooperatibak bazkideei ezarritako diziplinazko zigorrak.
- c) Aurreko 3. apartatuan aipatu diren materializazioen etekin finantzarioak.
- d) Kontribuzioaren helburu zehatzei atxikitako ibilgetuaren ondasunak besterentzean lortutako mozkinak.

7. Horrela zehaztutako emaitzen kontuaren saldoa kontribuzioaren kontura eramango da.

Kontribuzioaren emaitzen kontura eramaten diren gastu, galera, sarrera eta mozkinak ez dira kontuan hartuko kooperatibaren Sozietateen gaineko Zergaren oinarri ezargarria kalkulatzeko.

8. Artikulu honetan xedatutakoa beste edozein kontribuzio edo fondori ere aplikatuko zaio xedapen honetan araututako izaera eta helburu berdinak baditu, baita dagokion legeria aplikagarriaren indarrez beste izenen bat hartzen badu ere.

18. artikulua. Kengarriak ez diren gastuak.¹¹

Kooperatibako bazkideen artean beren soberakinen kontura banatutako kopuruak eta bazkideek kooperatibari lagatako gozameneko ondasun, zerbitzu, hornidura, bazkideen lan-prestazio eta ondasunen errenten emateei kontuetan esleitutako gehiegizko balioa (foru-arau honetako 15. artikuluan xedatutakoari jarraiki ezarritako merkatuko balioarekikoa) ez dira partida kengarritzat hartuko zerga-oinarria finkatzeko.

Gainera, ezin zaie aplikatu Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko IV. tituluko V. kapituluan xedatutakoa.

¹¹ Artikulu hau 2/2014 Foru Arauaren hamaseigarren xedapen gehigarriaren 1. apartartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen Gaineko Zerga arautzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean sartzen da indarrean, eta 2014ko urtarrilaren 1etik hasitako ekitaldietarako ditu ondorioak (2014/1/22ko GAO).

Hirugarren atala. Zerga zorra

19. artikulua.- Zergapetze bikoitza ezabatzea.¹²

Kooperatiba babestuen eta babes berezia duten kooperatiben itzulkinen gaineko ezarpen bikoitza ezabatzeko foru arau honetako 25. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da.

20. artikulua. Kenkaria enplegua sortzeagatik.

Sozietateen gaineko Zergak enplegua sortzeagatik aurreikusten duen kenkaria honako kasuotan aplikatuko da, hots, ekitaldi ekonomiko bakoitzerako ezarritako supostu eta baldintzetan eta, halaber, lankide-kooperatibetan bazkide langile berriak edo, edozein kooperatibatan, oro har, lan-bazkide berriak behin-betiko onartzen direnean probaldia behin gainditu eta gero.

Laugarren atala. Aportazio sozialak eguneratzea.

21. artikulua. Aportazio sozialak eguneratzea.

Kooperatiben balantzea Sozietateen gaineko Zergari atxikita dauden entitateen baldintza eta onura berdinekin erregularizatu ahal izango da, baina, hori bai, Kooperatiben Legeek balantzearen erregularizazioaren emaitzari ematen zaion erabilerari buruz diotena eragotzi gabe.

Bosgarren atala. Atxikipenak eta konturako beste ordainketak.

22. artikulua. Atxikipenak eta konturako beste ordainketak.

1.¹³ Sozietate kooperatiboek indarrean dagoen ordenamenduak agintzen dituen atxikipenak egin beharko dizkiete beren bazkideei eta hirugarrenei, bai eta bidezkoak gertatzen diren konturako beste ordainketa guztiak gauzatu ere.

Gertatzen bada, hain zuzen, bazkideak lankide kooperatibetako bazkide langile direla edo beste edozein kooperatibetako lan-bazkide modura ari direla, lan pertsonalaren etekinak kapital higiezinaren etekinetatik bereiziko dira. Lan aurrerakinen zenbatekoa lan etekinak direla joko da, baina dagokion jarduera sektorerako zonan ematen diren ordainsari arrunten zenbatekoa gainditu gabe.

Era berean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren urtarriaren 17ko 2/2014 Foru Arauak 130 bis artikuluan aipatutako ordainketa

¹² Artikulu hau 2/2014 Foru Arauaren hamaseigarren xedapen gehigarriaren 2. apartartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen Gaineko Zerga arautzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean sartzen da indarrean, eta 2014ko urtarriaren 1etik hasitako ekitaldietarako ditu ondorioak (2014/1/22ko GAO).

¹³ Apartatu hau maiatzaren 10eko 1/2018 foru arauaren 3. artikulua aldatu du. Aipatutako foru arauak zerga arau batzuetan aldaketak sartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean eta aldaketak 2018ko urtarriaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak ditu (2018/05/17ko GAO).

zaticatuak egitera behartuta egongo dira, salbu eta aipatutako foru arauaren 13. artikuluan mikroenpresatzat edo enpresa txikitzat hartzeko jasotako beharkizunak betetzen dituzten sozietate kooperatiboak badira.

2. Ondorio horietarako, ekitaldi ekonomikoan erabilgarri gelditzen den soberakinaren zatia kooperatiba-itzulkin gisa kreditatzen zaienean bazkideei dibidenduen trataera bera izango du.

Foru arau honen 18. artikuluan gastu ez kengarri bezala definitu diren diru-kopuruak eta kontuan esleitutako gehiegizko balioak itzulkin aurreratutzat joko dira.

3. Atxikipena benetan ordaindutako zenbatekoengatik eta kontura abonatutakoengatik egin beharko da exigjarri gertatzen diren unetik aurrera.

23. artikulua. Erregela bereziak.

1 Kooperatiba-itzulkinak ez dira kapital higigarriaren etekintzat hartuko eta ez dute, beraz, atxikipenik izango honako kasuetan:

a) Kapital sozialari gehitu eta bazkidearen aportazioak handitzen dituztenean.

b) Aurreko ekitaldietako galera sozialak konpentsatzeko erabiltzen direnean.

c) Batzar Orokorrak arautuko duen Fondo Berezi batean sartzen direnean, beti ere bazkideari itzultzeko epea amaitzen ez bada, honek baja hartzen ez badu edo galerei aurre egiteko nahiz kapital sozialari aportazioak egiteko erabiltzen ez baditu.

2. Aurreko c) apartatuan jasotako kasuetan, atxikipena egiteko obligazioa itzulkinaz baliatzeko finkatzen den lehen egunean hasten da, lehen esandako modalitateetako edozein erabiliz, eta bere kasuan sor daitezkeen interesei dagokienez, obligazio hori interesak likidatzeko seinalatzen den egunean hasten da.

III. TITULUA KOOPERATIBEN BAZKIDEEI BURUZ

24. artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergen hainbat partidak duten trataera.

Sujetu pasiboa kooperatiba baten bazkide denean, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga aplikatzerakoan honako arau hauek hartuko dira kontuan:

a) Foru arau honen 22. eta 23. artikuluen arabera atxikipena izan behar duten kooperatiba-itzulkinak kapital higigarriaren etekinak direla joko da.

b) Bazkideei egozten zaizkien galera sozialak ez dira inoiz oinarri ezargarria kalkulatzeko kengarriak izango.

c) Aportazio sozialak eskualdatu edo berreskuratzeagatik ondarean gertatzen diren aldaketen zenbatekoa honela kalkulatu da: eskurapen kostuari sarrerako kuotak eta aldian-aldikoak gehituko zaizkio, eta horrekin batera, baita kooperatiben galerak ere hauek, Euskadiko Kooperatibei buruzko Legeak edo Kooperatibei buruzko Lege aplikagarriak diotenari jarraiki, bazkideari egotzi zaizkionean, dirutan itzuli edo bazkideak dituen itzulkinekin konpentsatzen direnean. Batzar Orokorrak arautuko duen Fondo Berezi batean sartuta egon behar dute itzulkin horiek.

d) Kooperatiba batek, bazkidearen izenean, beste kooperatiba batera eramaten dituen haren aportazioak, aportazio horiek ez direla eskualdatzen edo berreskuratzen ulertuko da honako baldintza hauek guztiak betetzen badira:

- Aportazioaren tokialdatzea bazkide titular bat beste kooperatiba batera joateagatik gertatzea.

- Bazkide titullarrak aportazio soziala erabiltzeko ahalmenik ez izatea.

- Baja ematen dion kooperatibaren estatutuek argi uztea bazkidea beste kooperatiba batera joanez gero bere aportazioa ere hara eraman behar duela inolako diru-itzulketarik gabe.

- Kooperatiba hartzaileak espreski ezagutzea zeintzuk diren tokialdatutako aportazioaren eskurapen kostua baloratzeko behar diren datuak bazkideak utzi duen kooperatiban edo, hala balitz, honen aurrekoetan sartu zenez garoztik.

¹⁴e) Borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitatearen obligazio estatutarioak nahiz kooperatibarenak berarenak betetzeko, kooperatibek bazkide langileen eta lan-bazkideen alde borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetan egiten dituzten ekarpenak ez dira gauzen bidezko lan etekintzat hartuko, baldin eta ekarpen horien xedea honako prestazioak finantzatzea bada: Ezgaituentzako sorospena, osasun laguntza, aldibaterako ezintasuna, haurdunaldian izan daitekeen arriskua, amatasuna, enplegurako laguntza edo heriotzagatik laguntza. Horretarako, beharrezkoa da, baita ere, bazkide langileak eta lan-bazkideak norbere konturako langileek edo langile autonomoek Gizarte Segurantzari duten erregimen bereziari atxikita egotea.

25. artikulua. Kooperatiben itzulkinen gaineko zergapetze bikoitza ezabatzea.¹⁵

¹⁴ Letra hau abenduaren 29ko 10/2006 FORU ARAUaren hogeigarren xedapen gehigarriak gehitu du. Aipatu foru arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen Gaineko Zerga onartzen du. Aldaketak 2001ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango ditu (2007-12-30ko GAO).

¹⁵ Artikulu hau 2/2014 Foru Arauaren hamaseigarren xedapen gehigarriaren 3. apartartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen Gaineko Zerga arautzen du. Aldi berean, Foru Arau hau aldatua izan zen, eta horren ondorioz, artikulua honen idazketa ere, hurrengo Foru arauagatik: 17/2014 Foru Araua, abenduaren 16koa, Sozietateen gaineko zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauan zuzenketa teknikoak sartzeko. Aldaketak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetan sartzen da indarrean, eta 2014ko urtarrilaren 1etik hasitako ekitaldietarako dituzte ondorioak (2014/1/22ko eta 2014/12/19ko GAO).

Kooperatiba babestuetako bazkide diren pertsona juridikoek 100eko 10eko kenkaria izango dute sozietateen gaineko zergan kooperatiben itzulkinei dagokienez. Gertatzen bada, bereziki babestutako kooperatiba izateagatik, etekin horiek foru arau honen 27. artikuluko 2. apartatuan aurreikusten den kenkaria izan dutela, kenkaria itzulkin horien 100eko 5ekoa izango da.

IV. TITULUA

KOOPERATIBEI AITORTZEN ZAIZKIEN ZERGA ONURAK

26. artikulua. Kooperatiba babestuei aitortzen zaizkien zerga onurak.

Kooperatiba babestuek honako zerga onura hauek izango dituzte:

1.¹⁶ Ondare transmisioen eta Dokumentatutako ekintza juridikoen gaineko zergan, salbuespena, aplika daitezkeen edozein kontzeptutan, Ondare transmisioen eta Dokumentatutako ekintza juridikoen gaineko zergari buruzko abenduaren 30eko 18/1987 Foru Arauko 29.1 artikuluan aurreikusitakoan izan ezik, jarraian aipatzen diren ekintza, kontratu eta eragiketei dagokionez:

- a) Osaketa ekintzak, kapitala handitzekoa, fusioa eta banaketa.
- b) Maileguak eta kredituak sortu eta baligabetzea, baita betebeharrak ordezkaturakoak ere.
- c)¹⁷ Ondasunak eta eskubideak eskuratzea Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legeak 68 bis artikuluan ezarritako kontribuzioaz baliatuta, artikuluko horretan jasotako helburuak betetzeko.

2.¹⁸ Sozietateen gaineko Zergan, zerga-oinarriari % 20ko karga-tasa aplikatuko zaio.

Hala ere, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauan mikroenpresatzat edo enpresa txikitzat hartzeko ezarritakoa betetzen duten kooperatibei zerga horren ordainketan % 18 karga-tasa aplikatuko zaie.

Babestutako kooperatibei Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko 59. artikuluko 3. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko zaie; beraien kuota efektiboa ezin da

¹⁶ Apartatu hau abenduaren 23ko 8/2008 Foru Arauaren amaierako laugarren xedapenak aldatu du. Aipatu Foru Arauak Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzen du. Aldaketa abenduaren 30ean jarriko da indarrean, naiz eta 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan zergaldietan aplikatuko da (2008-12-30ko GAO).

¹⁷ Letra hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUAREN laugarren artikulua lau apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak zenbait zergatan aldaket jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 29an jarri da indarrean, nahiz eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko den. (2009-12-28ko GAO).

¹⁸ Apartatu hau 2/2014 Foru Arauaren hamaseigarren xedapen gehigarriaren 4. apartatutako aldatu du. Aipatutako foru arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen Gaineko Zerga arautzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean sartzen da indarrean, eta 2014ko urtarrilaren 1etik hasitako ekitaldietarako ditu ondorioak (2014/1/22ko GAO).

izan zerga-oinarriaren % 9 baino gutxiago, oro har, edo zerga-oinarriaren % 8 baino gutxiago, kooperatibak aurreko paragrafoan aipatutako karga-tasa jasaten badu.

Kooperatibak aurreko ekitaldiko plantillako lan-kontratudunen batez besteko kopurua mantentzen badu edo gehitzen badu, aurreko paragrafoko ehunekoak barik ondoko hauek aplikatuko dira, hurrenez hurren: % 7 eta % 6.

3.¹⁹ Halaber, sozietateen gaineko zergan amortizazio askatasuna izan dezakete aktibo ez-korronteko elementu berri amortizagarriek, hain zuzen ere kooperatiben erregistro egokian inskribatu direnetik hiru urteko epealdian eskuratu badira.

Amortizazio askatasunaren kontzeptuan fiskalki kengarria den zenbatekoa ezin izango da handiagoa izan, behin ekitaldi bakoitzeko amortizazio normala gutxienekoa baino txikiagoa ez den kopuruan egin ondoren, emaitzen kontuaren saldoaren zenbatekoa baino, betiere nahitaez derrigorrezko erreserbako funtsari egin beharreko aplikazioak eta soldatapeko langileen partaidetzak gutxituta.

Elementu berberetarako, onura hau bateragarria da, hala badagokio, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren V. tituluko III. kapituluan ezarritako inbertsio kenkariekin.

Apartatu honetan aipatzen den amortizatzeko askatasuna aukerakoa da, eta autolikidazioa aurkezten denean gauzatuko da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 128. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, eta artikuluko horretako 1. apartatuko c) letran araututakoaren tratamendu bera jasoko du.

27. artikulua. Bereziki babestutako kooperatibei aitortzen zaizkien zerga onurak.

Bereziki babestutako kooperatibek honako zerga onura hauek izango dituzte aurreko artikuluan adierazitakoez gainera:

1. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan, ondasun eta eskubideak eskuratzea zergaz salbuesten da kooperatibaren eta estatutuen xedeak betetzeko zuzenean erabiltzen direnean.

2.²⁰ Sozietateen gaineko zergan, kuota likidoaren 100eko 50eko kenkaria izan ahal izango dute.

Nekazaritzako ustialekuak modernizatzeari buruzko uztailaren 4ko 19/1995 Legeak 5. artikuluan lehentasunezkoztat jotzen dituen ustialeku elkartuak foru

¹⁹ Apartatu hau 2016ko azaroaren 14ko 5/2016 FORU ARAUaren 6. artikuluan bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak 2016. urtean zerga aldaketa jakin batzuk onartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkarian Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2016/11/18ko GAO) eta aldaketak 2016ko urtarilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango ditu..

²⁰ Apartatu hau 2016ko azaroaren 14ko 5/2016 FORU ARAUaren 6. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak 2016. urtean zerga aldaketa jakin batzuk onartzen ditu. Foru araua Gipuzkoako Aldizkarian Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean (2016/11/18ko GAO) eta aldaketak 2016ko urtarilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioak izango ditu.

arau honen arabera bereziki babestutako nekazaritza kooperatibatzat hartzen direnean, 100eko 75eko kenkaria izango dute kuota likidoan.

Era berean, foru arau honen 26. artikuluko 2. apartatuko hirugarren eta laugarren paragrafoetan ezarritako portzentajeak zuzenduko dira zenbaki honetan ezarritako kenkari portzentajeetatik eratorritako proportzioak aplikatuz.

Apartatu honetan aipatzen den kenkaria aukerakoa da, eta autolikidazioa aurkeztzen denean gauzatuko da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 128. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, eta ezin da aldatu borondatezko aitorten epea amaituta badago.

3.²¹ Gipuzkoako lurralde historikoko Sozietateen gaineko Zergaren urtarilaren 17ko 2/2004 Foru Arauaren 67. artikulua 1. apartatuan jasotako kenkarien muga aurreko 2. zenbakian jasotako kenkariak aplikatu ondoren ezarriko zaio, hala badagokio, ateratzen den kuotari.

28. artikulua. Bigarren mailako kooperatibak.

1. Foru arau honen 12. artikuluan adierazitako egoeretan sartzen ez diren bigarren eta hurrengo mailako kooperatibek foru arau honek 26. artikuluan aurreikusten dituen zerga onurak izango dituzte.

2. Foru arau honen 12. artikuluan adierazitako egoeretan sartzen ez diren bigarren eta hurrengo mailako kooperatibek bereziki babestutako kooperatibak bakarrik elkartzen dituztenean, Foru Arau honen 27. artikuluan aurreikusten diren zerga onurak ere izango dituzte.

3.²² Elkartutako kooperatibak babestuak edo babes berezikoak badira, aurreko 26. artikuluan ezarritako zerga-onurez gainera foru arau honetako 27. artikuluko 2. zenbakian ezarritako kenkaria ere aplikatu ahal izango dute; kenkari hori babes bereziko kooperatibekin egindako eragiketen ondoriozko emaitzei dagokien kuota likidoari soilik aplikatuko zaio.

29. artikulua. Kooperatiben batasun, federazio eta konfederazioak.

Kooperatibei buruzko legeetan xedatutakoari jarraiki eratzen diren kooperatiben batasun, federazio eta konfederazioek honako zerga onura hauek izango dituzte:

²¹ Apartatu hau abenduaren 23ko 7/2015 Foru Arauaren 8. artikulua gehitu du. Aipatu Foru Arauak, zerga alorreko aldaketa jakin batzuk onartzen ditu. Foru Araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean. Aldaketa, ordea, 2015ko urtarilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko da. (2015-12-28ko GAO).

²² 3. apartatu hau 2/2014 Foru Arauaren hamaseigarren xedapen gehigarriaren 6. apartatutako aldatu du. Aipatutako foru arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen Gaineko Zerga arautzen du. Aldi berean, Foru Arau hau aldatua izan zen, eta horren ondorioz, 3. apartatu honen idazketa ere, hurrengo Foru arauagatik: 17/2014 Foru Araua, abenduaren 16koa, Sozietateen gaineko zergari buruzko urtarilaren 17ko 2/2014 Foru Arauan zuzenketa teknikoak sartzeko. Aldaketak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunetan sartzen da indarrean, eta 2014ko urtarilaren 1etik hasitako ekitaldietarako dituzte ondorioak (2014/1/22ko eta 2014/12/19ko GAO).

a) Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan, bereziki babestutako kooperatibei salbuesten zaizkien egintza, kontratu eta eragiketa berberak salbuesten dira.

b) Sozietateen gaineko Zergatik salbuesten dira araudi erregulatzailerak ezarritakoaren arabera.

c) Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak erregulatzen dituenak, 9. artikuluan xedatzen duenez, udalerriek, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga dela eta, kuotaren edo, hala badagokio, errekararen 100eko 25, 50, 75 edo 95eko hobaria eman ahal izango diete kooperatiben batasun, federazio eta konfederazioei.

30. artikulua. Zerga onurak aplikatzea eta hauek galtzea.

Foru arau honetan jasotzen diren salbuespen eta hobariak babestutako kooperatibei eta, hala badagokio, bereziki babestutakoei aplikatuko zaizkie, eta ez da beharrezkoa izango horien bidez kotasunari buruz ezein aitortzen administratiborik aurrez egitea.

Fiskalki babestutako kooperatiben izaera galtzeko foru arau honetan tipifikatzen diren egoeretakoren bat agertuz gero, zerga erregimen orokorra izango da aplikatuko dena foru arau honen 14. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuz, eta ekitaldi ekonomikoan gozatu diren onurak galdu egingo dira. Hau guztia, Zergen Foru Arau Orokorrek urraperen eta zigor tributarioei buruz eta berandutza-interesei buruz dioena aplikatzearen kalteetan gabe egingo da eta, bereziki arau horrek 84. artikuluan eta 86. artikuluan 3. apartatuan isunak ez diren zigorrei buruz xedatutakoa eragotzi gabe.

31. artikulua. Egiaztapena eta ikuskapena.

Zerga Administrazioak foru arau honetan ezartzen diren zerga onurak gozatzeko behar diren zirkunstantzia edo baldintzak bete egiten direla egiaztatuko du eta, bidezkoa bada, kooperatibaren egoera tributarioa erregularizatzeari ekingo dio hala behar denean.

V. TITULUA KREDITU KOOPERATIBEI BURUZ

32. artikulua. Kreditu kooperatiben definizioa zerga ondorioetarako.

1. Kreditu Kooperatibei buruzko maiatzaren 26ko 13/1989 Legearen eta Kooperatibei buruzko beste lege aplikagarrien printzipio eta xedapenak betetzen dituzten entitateak hartuko dira, foru arau honen ondorioetarako, kreditu kooperatibatzat, baldin eta Espainako Bankuaren Erroldan, Merkataritza Erroldan eta dagokien Kooperatiben Erroldan inskribaturik badaude.

2. Ezingo dira halakotzat hartu, nahiz eta izen hori erabili eta kalifikazioa oraindik galduta ez izan, Kreditu Entitateen Disziplina eta Eskuhartzeari buruzko uztailaren 29ko 26/1988 Legeak larri edo oso larritzat kalifikatzen dituen arau-haustetengatik zigortuak izan direnak, edota foru arau honen 12. artikuluan

aurreikusten diren egoeretakoren batean sartzen direnak. Artikulu horren 6., 10. eta 13. apartatueta jasotako egoerak aldatu egiten dira Kreditu Kooperatibei aplikatzerakoan, horientzat honako hauek ezartzen dira eta:

a) Kooperatibekin egindako eragiketen proportzioan ez kreditatzea bazkideei itzulkinak edo bazkide ez diren beste batzuei banatzea itzulkin horiek. Lan-bazkideak egonez gero, kooperatibak babestua izaten jarraituko du haiei kreditatzen zaizkien itzulkinak ekitaldi ekonomikoan jasotako lan aurrerakinen proportzioan baldin badaude.

b) Bazkide ez direnekin eragiketa aktiboak egitea hauek kooperatibaren baliabide guztien 100eko 50 gainditzen dutenean ekitaldi ekonomikoan.

Portzentaia horretan konputatu gabe utziko dira kreditu kooperatibek kooperatiba elkartuen bazkideekin egiten dituzten eragiketak, diruzaintzako soberakinak bankuarterko merkatuan sartzekoak, eta legezko koefizienteak estali nahiz diruzaintzako soberakinak merkaturatzeko asmoz errenta finkoko balore eta aktibo finantzarioak erostekoak.

c) Kapital soziala bere unean ezarriko den gutxienezko zifratik behera murriztea arauzko epean handitu gabe, edo kooperatibak beren estatutuen eremutik kanpo eragiketak edo zerbitzuak egitea aurretik kapitala gehitu gabe eta estatutuetan derrigorrezko aldaketak egin gabe.

33. artikulua. Aitortzen zaizkien zerga onurak.

Aurreko artikuluan aipatzen diren kreditu kooperatibei hurrengo zerga onura hauek aplikatuko zaizkie:

1.²³ (indargabetua)

2. 26. artikuluan jasotzen diren zerga onurak, beren izaera eta jardueragatik aplikagarriak baldin bazaizkie, artikulu horren 2. eta 3. apartatueta zehaztutakoak izan ezik.

VI. TITULUA KOOPERATIBA TALDEEN ERREGIMENA

34. artikulua. Kooperatiba elkarten taldeak.

1.²⁴ Estatutuetako arauak direla eta enpresa-jardueretan lotura-harremanak dituzten sozietate kooperatiboen taldeek Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauko VI.

²³ Apartatu hau 2/2014 Foru Arauaren xedapen indargabetzaila bakarraren 2. apartartaturen c) letrak aldatu du. Aipatutako foru arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen Gaineko Zerga arautzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean sartzen da indarrean, eta 2014ko urtarrilaren 1etik hasitako ekitaldietarako ditu ondorioak (2014/1/22ko GAO)

²⁴ Apartatu hau 2/2014 Foru Arauaren hamaseigarren xedapen gehigarriaren 7. apartartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen Gaineko Zerga arautzen du. Aldaketa Gipuzkoako

tituluko VI. kapituluko zerga-baterakuntzaren araubidea aplikatzea hauta dezakete. Hautatuz gero, foru arau honetan xedatutakoaren kontra ez datorren guztia aplikatuko da.

2.²⁵ Zerga-baterakuntzaren araubidea dela eta, hauxe da sozietate kooperatiben taldea: taldearen buru den entitateak eta haren bazkide diren kooperatibek osatutako multzoa; taldeburuak estatutuetan araututako erabaki-ahalmenak erabiltzen ditu.

Sozietate kooperatiboen taldeko burua sozietate kooperatiboa zein beste era bateko entitatea izan daiteke; beste era batekoa bada, ezinbestekoa da beraren helburu bakarrak taldeko kooperatiben enpresa-garapena eta epe luzerako estrategiak planifikatzea eta koordinatzea izatea. Kooperatibek soilik eduki dezakete partaidetza.

3. Harreman lotesleak egoteak berekin dakar kooperatiba taldearen partaide bakoitzak lortzen duen soberakin garbia solidarioki eta hurrengo artikuluan adierazten den eran banatzeko konpromezua hartzea. Konpromezu hau kooperatiba guztiek izenpetuko duten eskritura publikoan jasoko da, bai eta bakoitzaren estatutuetan agertu ere.

4. Soberakin garbiaren 100eko 25 izango da gutxienez banatu beharreko portzentaia, beti ere zergak eta, legearen aginduz, erreserba fondoari eman beharreko diru-kopuruak kendu ondoren, eta banaketa taldekide diren kooperatiben bazkideek egindako eragiketa, jarduera eta zerbitzuen zenbateko ekonomikoaren zuzeneko proportzioan egingo da.

35. artikulua. Kooperatiba taldeen erregimena aplikatzea.

1. Taldea osatu behar duten kooperatiba elkarte guztiek hala erabakitzen dutenean aplikatuko da sozietate taldeen erregimena. Talde buru den entitateak, erregimen hau aplikatzen hasten den zergaldiko lehen hilaren azken eguna baino lehen, erabaki horien berri eman beharko dio Zerga Administrazioari eta, horretarako, ondoko dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

a) Sozietate taldeen erregimenera biltzeko kooperatiba elkarteetako Batzar Orokorrek hartutako erabakia.

b) Aurreko artikuluen 3. apartatuan aipatzen den konpromezua hartzen dutela adierazten duen eskritura publikoa.

c) Taldekide diren kooperatiba elkarten estatutuak.

2. Kooperatiba elkarteek, sozietate taldeen erregimena behin aukeratu eta artikulua honetan ezartzen diren baldintzak betetzen dituztenean, kooperatiben

Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean sartzen da indarrean, eta 2014ko urtarrilaren 1etik hasitako ekitaldietarako ditu ondorioak (2014/1/22ko GAO).

²⁵ Apartatu hau 2/2014 Foru Arauaren hamaseigarren xedapen gehigarriaren 7. apartatutako aldatu du. Aipatutako foru arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen Gaineko Zerga arautzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean sartzen da indarrean, eta 2014ko urtarrilaren 1etik hasitako ekitaldietarako ditu ondorioak (2014/1/22ko GAO).

taldean geldituko dira nahitaez sartuta baldintza horiek bete eta hurrengo ekitalditik aurrera.

Aldiz, baldintza horiek jada betetzen ez dituzten kooperatiba elkarteak horiek betetzeari utzi dioten ekitaldi berean geratuko dira taldetik kanpo.

36. artikulua. Ezabapenak.

Sozietateen gaineko Zergaren oinarri ezargarri kontsolidatua kalkulatzeko, zerga horren araudian eta foru arau honetan jasotzen diren xedapenak aplikatuko dira, eta ezabapenak talde barruko eragiketa hauek direla eta baino ez dira egingo:

- a) Talde barruko kooperatiben arteko itzulkinak.
- b) Hartutako obligazioak betetzeko kooperatiba elkarteek elkarri eman beharreko diru-laguntzak ez dira gastu kengarriak izango eta ez dira sarrera bezala ere konputatuko.
- c) Talde buru den entitateak banatutako emaitzak.

37. artikulua. Sozietate kooperatiben taldea: kuota aplika daitezkeen kenkariak eta zergapetze bikoitza ezabatzea.²⁶

1. Sozietate kooperatiboen taldeen kuota osoari eta kuota likidoari foru-arau honetan eta haien araubide orokorrean ezarritako kenkariak aplikatu ahal zaizkie.

Kenkari horiek aplikatzeko ezarritako baldintzak sozietate kooperatiboen taldeari dagozkio.

2. Sozietate kooperatiba batek talde batean sartzean aplikatzeko dauzkan kenkariak taldearen kuota osoan edo kuota likidoan aplika daitezke, kasuan kasukoa, banakako araubidean sozietateak edukiko zuen muga berarekin.

3. Zergapetze bikoitza ezabatzeko foru-arau honetan ezarritako espezialitateak hartuko dira kontuan.

38. artikulua. Kooperatiba taldeen erregimena galtzea.

Sozietate taldeen erregimena, araudi orokorrean aipatzen diren arrazoiengatik ez ezik, kooperatibaren soberakina solidarioki banatzeko konpromezua ez betetzeagatik ere galduko da.

Sozietate taldeen erregimena galdu egingo da, halaber, talde buru den entitateak, sozietate kooperatibo ez izanik, 34. artikulua 2. apartatuan adierazitako xedea ez duten jarduerak burutzen dituenean.

²⁶ Artikulu hau 2/2014 Foru Arauaren hamaseigarren xedapen gehigarriaren 8. apartartatuak aldatu du. Aipatutako foru arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen Gaineko Zerga arautzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean sartzen da indarrean, eta 2014ko urtarrilaren 1etik hasitako ekitaldietarako ditu ondorioak (2014/1/22ko GAO).

39. artikulua. Atxikipenak.

Kooperatiba elkarteen taldekide diren entitateek ordaintzen dituzten kapital higigarriaren etekinek ez dute atxikipenik izango.

40. artikulua. Talde buru den entitatea.

Sozietate talde batean nagusitasuna duen sozietateari lege eta zerga arloko ordenamenduak ematen dizkion ahalmen, erantzukin eta obligazio guztiak talde buru den entitateak hartuko ditu, beti ere foru arau honetan ezarritakoarekin bat badator.

VII. TITULUA HERRI ONURAKO ETA HERRI EKIMENENKO KOOPERATIBAK ²⁷

41. artikulua. Herri onurako kooperatiben definizioa.

Zerga ondorioetarako, herri onurako kooperatibatzat hartuko dira Herri onurako sozietate kooperatiben prozedurari eta beharkizunei buruzko otsailaren 2ko 64/1999 Dekretuak jasotakoaren arabera kalifikazio hori lortu duten kooperatibak, baldin eta beharkizun hauek betetzen badituzte:

a) Inoiz izan daitezkeen emaitza positiboak banatu ezin izatea bazkideen artean, eta haien helburuak gauzatzera bideratzea.

b) Artezkaritza kontseiluko karguak dohaineko izaeraz betetzea.

c) Bazkideak edo Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak 16.2 artikuluan sar daitekeen loturazko harreman bat bazkideekin duten pertsona eta entitateak ez izatea jardueren hartzaile nagusiak, ez eta zerbitzuen lorpenaz gozatzeko prestazio edo baldintza berezirik edukitzea ere.

42. artikulua. Herri ekimeneko kooperatiben definizioa.²⁸

1. Zerga ondorioetarako, herri ekimeneko kooperatibatzat hartuko dira, irabazi asmorik gabeak izanik eta kontuan hartu gabe zein motatakoak diren, haien sozietate helburua honako hau duten kooperatibak: zerbitzu asistentzialak ematea, osasun, hezkuntza, kultur edo gizarte jarduerak eginez; edo, bestela, edozein gizarte bazterketa bizi duten pertsonak laneratzea eta, oro har, merkatuan arretarik ematen ez zaien behar sozialak asetzea helburu duen edozein jarduera ekonomikoa garatzea.

²⁷ Título hau Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 Foru Arauaren 5. Artikuluko Sei Zenbakiak gehitu du, 2002ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. (GAO 2002-05-20)

²⁸ Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 FORU ARAUaren hamabigarren xedapen gehigarriak 42 artikuluko 2 apartatua aldatzen du eta 3 apartatu bat gehitzen du. Foru araua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu (GAO 2004-04-19) eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izango ditu ondorioak

2. Sozietateen gaineko Zergan, onura publikoko kooperatibei eta gizarte ekimeneko kooperatibei aplikatuko zaien zerga erregimena, Irabazi Asmorik Gabeko Entitateen Zerga Erregimenari eta Mezenasgoaren Aldeko Zerga Pizgarriei buruzko Foru Arauaren 7-16 artikuluetan ezarritakoa izango da. Era berean, onura publikoko kooperatiben eta gizarte ekimeneko kooperatiben alde pertsona juridikoek egindako emaitza eta ekarpenei, eta enpresa lankidetzako hitzarmenei, foru arau horretako III. tituluko II. kapituluko dagozkion artikulua eta 27. artikulua aplikatuko zaizkie.

3. Udal zergetan, Irabazi Asmorik Gabeko Entitateen Zerga Erregimenari eta Mezenasgoaren Aldeko Zerga Pizgarriei buruzko Foru Arauko 17. artikuluan ezarritako zerga erregimena aplikatuko zaie.

43. artikulua. Herri onurako eta herri ekimeneko kooperatibei aitortutako zerga onurak.

1. Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan, ondoko hauek salbuetsita egongo dira, aplikaziozkoa izan daitekeen edozein kontzeptugatik, salbu Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 18/1987 Foru Arauak 29.1 artikuluan ondoko egintza, kontratu eta eragiketei dagokienez jasotako karga:

a) Eraketa, kapital zabalpen, bategite eta bereizte egintzak.

b) Maileguen eraketa eta deuseztapena, bai eta obligazio bidezkoena ere.

c)²⁹ Ondasunak eta eskubideak eskuratzea Euskadiko Kooperatibei buruzko ekainaren 24ko 4/1993 Legeak 68 bis artikuluan ezarritako kontribuzioaz baliatuta, artikulua horretan jasotako helburuak betetzeko.

d) Kooperatiben sozietate eta estatutu helburuak betetzeko zuzenean erabiltzen diren ondasun eta eskubide eskurapenak.

2.³⁰ Sozietateen gaineko zergan, aplikaziozko zerga erregimena Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauaren 7.etik 16. artikulura bitarteko artikuluetan ezarritakoa izango da. Era berean, onura publikoko kooperatiben eta gizarte ekimeneko kooperatiben alde pertsona juridikoek egindako emaitza eta ekarpenei, eta enpresa lankidetzako hitzarmenei foru arau honetako 19.etik 28. artikulura bitarteko artikulua aplikatuko zaizkie.

²⁹ Letra hau abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUaren laugarren artikulua bost apartatuak aldatu du. Aipatu foru arauak zenbait zergatan aldaket jakin batzuk sartzen ditu. Aldaketa 2009ko abenduaren 29an jarri da indarrean, nahiz eta 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko den. (2009-12-28ko GAO).

³⁰ 2. apartatu hau zerga neurri batzu onartzen dituen urriaren 28ko 10/2005 Foru arauaren 5. artikulua aldatu du. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean (2005-11-03ko GAO).

3.³¹ Udal zergetan, Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauaren 17. artikuluan ezarritako zerga erregimena aplikatuko zaie.

44. artikulua. Zerga onuren galera.

Herri onuraren kalifikazioa galtzeak edo hurrenez hurren aurreko 41. eta 42. artikuluetan finkatutako herri onurako edo herri ekimeneko kooperatibaren izaera aitortzeko exijitutako beharkizunetako bat ez betetzeak berarekin ekarriko du kalifikazioa galdu edo beharkizuna bete ez den ekitaldian gozatu diren eta 43. artikuluan jaso diren zerga onurak galtzea, eragotzi gabe Zergen Foru Arau Orokorrek zerga urraketa eta zigorrei eta berandutza interesei buruz jasotakoa eta, partikularki, foru arau horrek 84. artikuluan eta 86. artikuluen 3 apartatuan isunezkoak ez diren zigorrei buruz xedatutakoa.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa

Abuztuaren 3ko 1776/1981 Erret Dekretuan jasotako helburuak betetzeko sortu eta dagokion erroldan inskribitzen diren Eraldaketarako Nekazaritza Sozietateek honako zerga-onura hauek izango dituzte:

a) Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergan, erabat salbuetsita daude kooperatibaren eraketari eta kapital zabalketari dagokienean.

b) Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak erregulatzen dituenak, 9. artikuluan xedatzen duenez, udalerriek, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga dela eta, kuotaren edo, hala badagokio, errekararen 100eko 25, 50, 75 edo 95eko hoberia eman ahal izango diete eraldaketarako nekazaritza sozietateei.

Zerga-onura hauek gozatu ahal izateko ezinbesteko baldintza izango da eraldaketarako nekazaritza sozietateek funtsezko aldaketarik ez izatea beren izaeran, dagokion erroldan inskribitzeko behar diren baldintzak betetzen jarraitzea, eta sozietate hauen arau erregulatzailerak ez haustea.

Aipatu zerga-onurak aplikatu eta egiaztatzeari dagokionez, eraldaketarako nekazaritza sozietateei foru arau honek 31. eta 32. artikuluetan xedatutakoa aplikatuko zaie.

Bigarren xedapen gehigarria. Lan elkartuko kooperatibak.³²

³¹ 3. apartatu hau zerga neurri batzu onartzen dituen urriaren 28ko 10/2005 Foru arauaren 5. artikulua aldatu du. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egunean jarriko da indarrean (2005-11-03ko GAO).

³² Xedapen gehigarri hau 2/2014 Foru Arauaren hamaseigarren xedapen gehigarriaren 9. apartatutik aldatu du. Aipatutako foru arauak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen Gaineko Zerga arautzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean sartzen da indarrean, eta 2014ko urtarrilaren 1etik hasitako ekitaldietarako ditu ondorioak (2014/1/22ko GAO).

Zerga-babesa duen lan elkartuko kooperatiba bateko bazkideen % 50 gutxienez elbarriak badira eta frogatzen badu eratu zenean bazkide horiek langabezian zeudela, kooperatibak jasaten duen Sozietateen gaineko Zergaren kargari % 90eko murrizketa aplikatuko zaio sozietate-jardueraren lehenengo bost urteetan, bazkide horien ehunekoa aldatu ezean.

Hirugarrena. Fruta eta barazkien nahiz koipekien sektoreetako ekoizleen erakundeen programa operatiboak eta ekintza planak.³³

Ekoizleen erakundeek, ekoizle erakundeen elkarteek edo operadoreek eta horien batasunek, beren programa operatiboei eta ekintza planei jarraituaz, fruta eta barazkien nahiz koipekien sektoreetako merkatuko baterako erakundeei buruzko batasuneko araudia betez egiten dituzten jarduketak ez dira inoiz hartuko zerbitzu prestaziotzat.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Aurreko ekitaldietatik datozen kuota oso negatiboak abenduaren 19ko 20/1990 Legeak, Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzkoak, 24. artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztu badira eta, foru arau hau indarrean sartzean, konpentsatu gabe egonez gero, oinarri ezargarri positiboekin konpentsatu ahal izango dira. Oinarri ezargarri positibo hauek, halabaina, aipatu kuotak kalkulatzeko diren zergaldiaren hasieratik kontatzen hasi eta hurrengo 15 urte jarraituetan amaitzen diren zergaldietan lortu beharko dira.

Ondorio horietarako, kuota horiek oinarri ezargarri bihurtu behar dira beren zehaztapenerako erabili ziren karga tasa berberak aplikatuz. Aurreko parrafoan adierazitako konpentsazioa ezingo da egin esandako eragiketetatik ateratzen diren oinarri ezargarrien batuketak emaitza negatiboa ematen duenean baizik.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehena. 20/1990 Legera jotzea.

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudiak, gai orokor zein jakinetan, Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzko abenduaren 19ko 20/1990 Legera jotzeko esaten duen guztietan, Foru Arau honetara jotzeko dioela ulertuko da.

Bigarrena. Uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua, Sozietateen gaineko Zergari buruzkoa, aldatzea.

1. Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauaren 33. artikuluari beste apartatu bat gehitzen zaio, 7.a, testu hau duela:

³³ Xedapen gehigarri hau, zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUaren seigarren xedapen gehigarriak gehitu du. Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (GAO 2004-04-16) argitaratu ondorengo egunean sartuko da indarrean eta egun horretatik aurrera sortuko ditu ondorioak. Hala ere, aldaketa honek 2004ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak.

“7. Kooperatiba babestuen eta bereziki babestuen itzulkinen ezarpen bikoitza saihesteko kenkaria Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzko Foru Arauak 26. artikuluan xedatutakoari jarraiki egingo da”.

2. Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauaren 29. artikuluko 2.c) eta 3.a) apartatuak ezabatu egiten dira.

3. Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak 39. artikularen 1. apartatuko lehen parrafoan dioena aldatu eta honela berridazten da:

“1. Zergaren tasa orokorrera bildutako sujetu pasiboek eta fiskalki babestutako kooperatibek ekitaldiko kontabilitate-emaiztatik datozen diru-kopuruen 100eko 10 kendu ahal izango dute kuota likidotik baldin eta diru-kopuru horiek Erreserba berezi batera zuzentzen badituzte. Erreserba berezi horrek Inbertsioetarako Erreserba edota Ingurugiroa Kontserbatu eta Hobetzeko nahiz Energia Aurrezteko Erreserba izango du izena, eta honako baldintza hauek bete beharko ditu:”

Hirugarrena

Foru Arau hau “Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean” argitaratzen den egunean sartuko da indarrean, eta 1997ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izango du eragina.

Aurreko parrafoan jasotakoa jasota ere, gertatzen bada kooperatibek 1997ko urtarrilaren 1etik aurrera hasi dutela zergaldia eta Foru Arau hau indarrean sartu baino lehen amaitzen dela zergaldi hori, lehendik indarrean zegoen araudia aplikatu ahal izango dute hala izanez gero.

Laugarrena

Foru Aldundiak behar diren arauak emango ditu Foru Arau hau aplikatu eta garatzeko.

ALDAKETAK

Honako zerrendan foru arauak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- *Abenduaren 6ko 91/2000 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia urriaren 6ko 10/2000 Errege Lege-Dekretuak esandakora egokitzen duena nekazaritza sektoreari laguntzeko presako zerga neurriei dagokienez.(2000-12-13ko GAO)*
 - 1. artikulua 7. artikuluan 2. apartatuko a) letrari bigarren paragrafoa gehitzen dio,
- *Zenbait zerga neurri onartzen duen maiatzaren 13ko 5/2002 FORU ARAUA. (2002-05-20ko GAO)*
 - 5. artikulua 5. artikuluan 1. apartatuko f) letra gehitzen du; 6. Artikuluko 3 zenbakia aldatzen du, 10.Bis artikulua gehitzen du; 16. Artikuluko 4 zenbakia aldatzen du; 27. Artikuluko 3 zenbakia indargabetzen du eta VII Titulua sortzen du.
- *Zergei buruzko zenbait neurri onartzen dituen apirilaren 6ko 2/2004 FORU ARAUA (GAO 2004-04-16).*
 - Seigarren xedapen gehigarriak hirugarren xedapen gehigarria gehitu du.
- *Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzko apirilaren 7ko 3/2004 FORU ARAUA (GAO 2004-04-19).*
 - Hamabigarren xedapen gehigarriak 42. Artikuluko 2 apartatua aldatzen du eta 3 apartatua gehitzen dio.
 -
- *Zerga neurri batzuk onartzen dituen urriaren 28ko 10/2005 FORU ARAUA (2005-11-03ko GAO).*
 - 5. artikulua 43. artikuluko 2. eta 3. apartatuak aldatu ditu.

-
- *8/2006 FORU ARAUA, abenduaren 1ekoa, zerga alorreko zenbait neurri onartzen dituena (2006-12-12ko GAO).*
 - 8. artikulua 7. artikularen 2. apartatuko a) letra aldatzen du.
-
- *10/2006 FORU ARAUA, Abenduaren 27koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Pertsona Fisikoen gaineko Zerga onartzen duena.*
 - Bere hogeigarren xedapen gehigarriak 24. artikulari e) letra gehitu dio eta 25. artikulua aldatu du.
-
- *Uztailaren 9ko 3/2008 FORU ARAUA, jarduera ekonomikoa sustatzeko neurri fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga kontabilitate erreformara egokitu eta bestelako zerga neurriak hartzen dituena (2008-07-11ko GAO).*
 - 11. artikulua 9. artikuluko 4. apartatua eta 10. bis artikulua aldatzen ditu.
 - 17. artikulua 26. artikularen 3. apartatuko lehen paragrafoa.
-
- *Abenduaren 23ko 8/2008 FORU ARAUA, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Araua aldatzekoa (2008-12-30ko GAO).*
 - Laugarren amaierako xedapenak 26. artikularen 1. eta 2. apartatuak aldatu ditu.
- *Abenduaren 23ko 4/2009 FORU ARAUA, zenbait zergatan aldaket jakin batzuk sartzen dituena. (2008-12-30ko GAO).*
 - Bere 4. artikulua hurrengo aldaketak onartu ditu, 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin:
 - Bere Bat apartatuak 12. artikularen 1. eta 3. apartatuak aldatu ditu.
 - Bere Bi apartatuak 16. artikularen 3. eta 4. apartatuak aldatu ditu.
 - Bere Hiru apartatuak 17. artikulua aldatu du.
 - Bere Lau apartatuak 26. artikularen 1. apartatuaren c) letra aldatu du.
 - Bere Bost apartatuak 43. artikularen 1. apartatuaren c) letra aldatu du.

- *Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zerga ekitatea lortzeko bidean aldatu eta beste zerga neurri batzuk onartzen dituen abenduaren 26ko 5/2011 FORU ARAUA (2011/12/27ko GAO).*
 - Bere 4. artikulua 7. artikularen 2. apartatuaren a) letra aldatu du.
- *2/2014 FORU ARAUA, 2014ko urtarrilaren 17koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergarena.(2014/01/22ko GAO).*
 - Bere hamaseigarren xedapen gehigarriak honako aldaketak sartu ditu 2014-01-01etik aurrera hasitako ekitaldietarako ondorioekin:
 - 18., 19., 25. eta 37. artikulua aldatu ditu.
 - 26. artikularen 2. eta 3. apartatuak aldatu ditu.
 - 27. artikularen 2. apartatua aldatu du.
 - 28. artikularen 3. apartatua aldatu du.
 - 34. artikularen 1. eta 2. apartatuak aldatu ditu.
 - Bigarren xedapen gehigarria aldatu du.
 - Bere xedapen indargabetzaile bakarraren bigarren apartatuaren c) letrak, 33. artikularen 1. apartatua indargabetu du 2014-01-01etik aurrera hasitako ekitaldietarako ondorioekin.
- *17/2014 FORU ARAUA, 2014ko abenduaren 16koa, Sozietateen gaineko zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauan zuzenketa teknikoak sartzeko.(2014/12/19ko GAO).*
 - Bere berrogeita bi apartatuak 2/2014 Foru Araua, 2014ko urtarrilaren 17koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergaren hamaseigarren xedapen gehigarria aldatzen du eta, ondorioz, hurrengo aldaketak sartzen dira 2/1997 Foru Arauan, Kooperatiben Zerga Erregimenari buruzkoan, 2014-01-01etik aurrera hasitako ekitaldietarako ondorioekin:
 - 25. artikulua aldatzen du.
 - 28. artikularen 3. apartatua aldatzen du.
- *7/2015 FORU ARAUA, abenduaren 23koa, Zerga alorreko aldaketa jakin batzuk onartzen dituena.(2015/12/28ko GAO).*
 - Bere zortzigarren artikulua, 27.3 artikulua gehitu du.
 -

- *2016ko azaroaren 14ko 5/2016 FORU ARAUA, 2016. urtean zerga aldaketa jakin batzuk onartzen dituena (2016/11/18ko GAO).*
 - Bere 6. artikulua 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietarako ondorioekin, prezeptu hauek aldatzen ditu:
 - 26. artikuluko 3. apartatua.
 - 27. artikuluko 2. apartatua.
- *1/2018 foru araua, maiatzaren 10ekoa, zerga arau batzuetan aldaketak sartzen dituena (2018/05/17ko GAO).*
 - Bere 5. artikulua 22. artikuluko 1. apartatua aldatu du.